

BALIO PROPOSAMENA




Gaur egun, dantza esparrua oso garrantzitsua da gure gizartean. Dantza mota desberdinak daude mundu osoan zehar, herrialde desberdin guztietan mota asko existitzen dira. Gure **dantza eskolan herrialde desberdinetako dantza desberdinak praktikatuko ditugu**, Euskal Herrikoak (euskal dantza), Espaniakoak (Flamenkoa), Frantziakoak (Frantziako Kankan-a) eta **denak elkartzeko helburuarekin dantza eskola internazionala**

sortuko dugu.

Dantzaren jatorria historiaurreko aroan sortu zen, dantzak kulturako parte bihurtu dira, eta hau dena praktikan jartzeko dantza eskolak sortu ziren. Dantza ikasteaz gain, bizitzako hainbat esparrutan eragina du.

Dantzek eboluzioa eduki dute, lehenik, antzina, erritmoak eta dantzak leunagoak ziren. Geroago, erabiltzen zituzten jantziak oso bestelakoak ziren. Ondoren, ez zegoen hainbeste musika estilorik, ezta dantzarik ere. Etengabe eta oso azkar eboluzionatzen joan dira. Bikote-dantzak adibidez, antzina, orain



baino distantzia handiagoa zuten eta horrelako aldaketekin, urteetan zehar dantza egiteko hamaika modu sortu dira.

Hasteko, gure dantza eskolak, gorputzaren mugimendua egiteaz gain, egunerokoan ditugun arazoetaz deskonektatzeko balio du, bertan **pertsonalizazioa** hartzen da kontuan, gainera, irudimena oso garrantzitsua izango da elkarte honetan dantzaldiak modu kolektibo batean



sortuko direlako eta emanaldiak sortzerako orduan jazkera erabaki beharko dute imajinazioa landuz, gainera, asko baloratuko da bakoitzaren jarrera eta elkarrekiko harremana taldea aurrera eramaterako orduan.

Ondoren, diseinua oso garrantzitsua izango da, aktuazioak aurrera eramateko, batez ere, jazkera aukeratzeko orduan.

Balio proposamenarekin ondorioztatu dezakegu, dantzak oso garrantzitsuak direla gure bizitzan. Kulturizitzeko, ikasteko, imajinazioa lantzeko, deskonektatzeko... balio duela, astean 3 orduan ongi pasatzen, bizitzako esperru desberdinak, konturatu gabe hobetzen joaten zarenean.



ANIMATU GURE PROPOSAMENAREN BITARTEZ DANTZAK BIZIRIK MANTENTZERA!!!

Naroa, Julene, Bixen eta Elene